
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



EUSKADIKO EGOERA SOZIOLABORALA

I. SEIHILEKOA 2018

2018ko urtarrila-ekaina aldiari dagokion lehenengo sei hileko txosten hau Lan Harremanen Kontseiluaren informazio soziolaboraleko planaren barruan sartzen da, eta orain arte argitaratzen ziren bi hiruhileko txostenak ordezkatzeko ditu, helburutzat EAEko egoera soziolaborala ikuspegi eta xehetasun handiagoarekin aztertzen duelarik, betiere funtsezko ardatz gisa enplegua eta negoziazio kolektiboa hartuta.

2018ko iraila


1. JARDUERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA.....	4
2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, GATAZKAKORTASUNA ETA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK	6
3. ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA.....	19

1. JARDUERA EKONOMIKOAREN BILAKAERA

Eustaten hiruhileko kontuen aurrerapenaren arabera, %2,8 izango da 2018ko bigarren hiruhilekoko EAeko BPGaren urte arteko hazkundera (%3,1 aurreko hiruhilekoan). Euskal ekonomiak 18 hilabete jarraitu erritmo onean hazten badaramatza ere, azken hiruhilekoan jaitsiera txiki bat nabaritzen da bere hazkunde tasan, balio handiekin jarraitzen badu ere.

Lanaldi osoko lanpostu baliokideen arabera neurtutako enplegua urte arteko %2,1 hazi zen apirila eta ekaina bitartean. Bestalde, Gizarte Segurantzarako batez besteko afiliazioa ere %2,1 hazi zen iazko aldi berarekin alderatuta.

Jarduera industrialari dagokionez (produkzio indizearen bidez neurtutakoa) urte arteko %2,9 hazi zen 2018ko lehenengo seihilekoan (%3,4 aurreko seihilekoan). Ondasunen zertarako ekonomikoa kontuan izanda, ekipamenduko ondasunen produkzioa %6 gehitu zen, energiaren produkzioa %2,5 eta tarteko ondasunena %1,7, eta zertxobait behera egin du, aldiz, kontsumo ondasunei buruzkoak (-%8).



Prezioei dagokienez, gure erkidegoari dagokion KPI orokorrak gehitu egin zuen urte arteko bere hazkunde erritmoa urteak aurrera egin ahala, eta urtarrileko %0,5etik

martxoko %1,2ra eta ekaineko %2,3ra igaro zen. Produktu energetikoen efektua alde batera uzten badugu, prezioen urte arteko aldakuntza ekainean %1,5 izan zen.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren maiatzeko aurreikuspenek BPGaren %2,8ko hazkundea biltzen dute 2018 osorako eta %2,3, aldiz, 2019rako. Era berean, enpleguaren %1,9ko eta %1,4ko hazkunde apalagoa biltzen du 2018rako eta 2019rako, hurrenez hurren.

Espainiako ekonomiarentzat, zeina aurtengo ekitaldiko bigarren seihilekoan urte arteko %2,7 hazi baitzen Estatistika Institutu Nazionalaren aurrerapenaren arabera, Espainiako Bankuak BPGaren zabalkunde apalagoa aurreikusten du 2018rako (%2,7), eta %2,3, aldiz, 2019rako.

Nazioartean, bereziki kezkarriak dira tentsio komertzial gero eta handiagoak (batez ere Estatu Batuen eta Txinaren artekoak) eta tentsio horiek merkatu finantzarioetan duten inpaktua, petrolioaren prezioan berriki ikusitako hegazkortasun handia, baita gorabidean dauden ekonomia batzuen arazoak ere.


Azkenik, adieraztekoa da banku zentral nagusiek estimulu monetarioak kentzeari ekin diotela, inoiz ez bezalako estimulu monetarioen hamaika urteren ondoren: Erreserba Federalak bere erreferentziazko tasa igotzen jarraituko du, eta Europako Banku Zentralak aldi berean iragarri du irailetik aurrera aktiboak erosteko bere programa erdira murriztuko duela, abenduan behin betiko amaitutzat ematea aurreikusten duelarik, beti ere datu berriek epe ertaineko inflazio aurreikuspenak berresten badituzte, eta ez dago jakiterik estimuluen kentze horrek zer inpaktu izango duen ekonomiaren hazkundean.

2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, GATAZKAKORTASUNA ETA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA

2.1- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA

2018ko lehen sei hilekoa amaitzean, langileen %38k eguneratuta zeuzkaten beren hitzarmenak, %46,7k luzatuta zituzten beren akordioak, eta langileen %15,3k aldiz, indargabetuta zeuzkaten beren hitzarmenak. Negoziazio kolektiboaren aurrerapen maila lehenengo sei hileko hau amaitzean apaltzat har badaiteke ere, azken hiru urte hauetako handiena izan da.



Era berean, urtean zehar hitzarmena berritu duten langileen portzentajea azken lau urteetako altuena da; eta hitzarmen

¹ 2016. urtea: Eguneratutako datuak urtarilaren 1erako atzeraeraginekin Bizkaiko Oro harreko Merkataritzaren Hitzarmen Kolektiboa erregistratu ondoren.

Indarrean dauden hitzarmenak: Hitzarmenen negoziatzaileek hitzartutako aplikazio epealdi arruntean dauden hitzarmenak.

Indarraldia luzatuta duten hitzarmenak: Aplikazio epealdia amaitutakoan luzatuta daudenak edo aurreraeraginezkoak.


Indargabetutako hitzarmenak: Hitzarmenaren amaiera iragarri ostein eta aurreraeragineko aldiaren ondoren, legekoa edo konbentzionala, indarraldian egoteari utzi diotenak, hitzarmenaren esparruari estaldura emango dion maila handiagoko hitzarmenik izan Gabe.

iraungiei dagokienez, haien eraginpeko biztanleria langilearen portzentajea aldi bereko txikiena da.

Hala, 2017ko ekainean langileen %33,2k soilik zeuzkaten eguneratuta beren hitzarmenak, 2016an %30,5 eta 2015ean %30,3 ziren soilik, eta orain, aldiz, %38ra iristen da langile horien ehunekoak, iaz baino bost puntu gehiago ia.

Adierazi behar da egoera hori ez dela abiapuntuko egoera hobe baten ondorio, 2018. urtea hastean hitzarmenak berrituta zituzten langileen ehunekoak aurreko ekitaldikoaren oso antzekoa baitzen, baizik eta sei hilabeteotan negoziazio mahaietan lortutako akordioen fruitu, batez ere EAEn negoziatutako hitzarmen sektorialen esparruan, enpresa esparruko egoera lehen seihilekoa amaitzean aurreko urtekoaren oso antzekoa baita.

3. GRAFIKOA
EAE-KO LANGILEEN BANAKETA,
SEKTOREKO/ENPRESAKO HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA




Negoiazio sektorialaren aurrerapen horri esker, posible izan da, halaber, egoera EAE/Estatua lurralde eremuen arabera aztertzean, eta iazkoarekin alderatuta, ikustea EAEn egindako negoziazio kolektiboak zertxobait gehiago egin duela aurrera EAEn eragina duten estatu esparruko hitzarmenei dagokien negoziazioak baino, nahiz eta adierazi

behar den bigarren esparru horretan eguneratutako hitzarmenak dituzten langileen ehunekoa handiagoa dela, eta beren hitzarmenak indargabetuta dituzten langileen ehunekoa txikiagoa dela.

Horrela, ekaina amaitzean beren hitzarmenak indarrean zituzten EAEn negoziatutako hitzarmenak dituzten langileak %29 ziren, 2017ko ekainean baino 5 puntu gutxiago, eta estatu esparruari dagokionez, langileen %61,1ek indarreko hitzarmena zuten, duela urtebete %57,1 zirelarik.

Era berean, nabarmentzekoa da indargabetutako hitzarmenak dituzten langileak 23.083 pertsonatan gutxitu direla, eta urte hasieran beren hitzarmenak indargabetuta zituzten langileak 110.912 baziren, ekainaren 30ean, aldiz, 87.829 dira estaldurarik gabe dauden langileak (negoziazio kolektiboko akordioen pean dauden langileen %15,3).

4. GRAFIKOA
EAE-KO LANGILEEN BANAKETA,
EAE/ESTATU HITZARMENAREN INDARRALDIAREN ARABERA



Lurralde eremu guztien bilakaera aztertzen badugu ekitaldiaren hasieratik, egiazta dezakegu lehenengo sei hilabete hauetan Bizkaian izan dela aurrerapen handiena, beren hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoa bikoiztu egin baita, eta nabarmen jaitsi da beren hitzarmenak indartuta dituzten langileen kopurua.

Indargabetuta zeuden bi hitzarmen sektorial berreskuratzea izan da arrazoi nagusia negoziazio kolektibotik kanpo

zeuden langileen kopuruaren jaitsiera ulertzeko. Eraikinen eta Lokalen Garbiketako Bizkaiko Hitzarmena ia 12.000 langilerekin eta Metalaren Merkataritzaren Bizkaiko Hitzarmena, 8.700 pertsonari baino gehiagori estaldura ematen diena.

Gainera, lurralde honetan urtarrila-ekaina aldi berritutako hitzarmen sektorialen barruan, Eraikuntzaren Bizkaiko Hitzarmena aipatu behar da bere garrantziagatik, 10.000 langile pasatxo hartzen baititu eraginpean.





Arabako lurralde historikoari dagokionez, eguneratutako hitzarmenak dituzten langileak urte hasieran %32,1 izatetik ekainaren amaierarako %42,9 izatera igaro dira, eta denboraldi horretan sinatutako hitzarmen sektorial garrantzitsuenak Eraikinen eta Lokalen Garbiketako eta Esku-hartze Sozialekoa izan dira, biek batera ia 3.600 pertsona hartzen baitituzte eraginpean.

Gipuzkoako lurralde historikoari dagokionez, beren hitzarmenak indarrean dituzten langileak %10,3 izatetik %15,8 izatera igaro dira, eta eraginpekoen kopurua kontuan hartuta nabarmentzekoak dira Kale Garbiketako eta Hiri Hondakinen Solidoen hitzarmena 1.000 langiletik gora hartuta eta Ehunkien Merkataritzako Hitzarmena, ia 2.700 pertsona hartzen dituelarik.

EAEn eragina duten estatu esparruko hitzarmenei dagokionez, beren hitzarmenak eguneratuta dituzten langileak %40,7 izatetik %61,1 izatera igaro dira, eta nabarmentzekoak dira eraginpeko pertsonen kopuruaren arabera 6.034 langilerekin, Aholkularitza Enpresak eta Merkatu Azterketak 9.000 pasatxorekin eta Ile-apaindegiak, Edergintza Zentroak eta Gimnasioak, ia 2.700 pertsonarekin.

Sei hilabete hauetan aurrerapen maila txikiena izan duen esparrua lurralde artekoa da, zeinean EAeko Ikastolen Hitzarmena eta EAeko Ekimen Sozialeko Irakaskuntza Arautuko Zentroen Hitzarmena berri gabe dauden 2009az geroztik, aurreraeragineko erregimenean badaude ere.

5. GRAFIKOA
2018KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N
LURRALDE EREMUEK ARABERA




2018/01/1eko datuak

2018/06/30eko datuak

- Hitzarmena iraungita eta babesteko goragoko eremuko beste hitzarmenik ez duten langileen portzentajea
- 2018an hitzarmena luzatuta eta berritzeko zain duten langileen portzentajea
- Hitzarmena indarrean duten langileen portzentajea

6. GRAFIKOA
% SOLDATA IGOERA EAE/ESTATUA, INDARREKO HITZARMENETAN

Urteko metatua hiruhileko bakoitzeko azken hilean



Itundutako soldata hazkunderari dagokionez, %1,77ra iritsi zen gure erkidegoan indarreko diren hitzarmenearako, Estatu osoan indarreko diren hitzarmenearako itundutakoa (%1,60) baino zertxobait gehiago.

Eremu funtzionalei dagokienez, enpresa eremuko soldata igoera (%1,51) sektoreko soldatetan izandakoa baino zertxobait txikiagoa da, %1,87an baitago azken hori.

2018an erregistratutako hitzarmenetan bildutako soldata igoerari dagokionez, %2,20ra iristen da EAEn, eta berriz ere handiagoak dira sektoreko hitzarmenetan bildutako igoerak enpresa hitzarmenetan bildutakoak baino (%2,31 eta %1,63, hurrenez hurren).

Azkenik, adieraztekoa da 2018ko ekainaren 25ean sinatu zutela Madrilen aurreakordio bat enplegurako eta negoziazio kolektiborako CEOE, CEPYME, CCOO eta UGT elkarteek, sinatzaileek ondoren abuztuaren 5ean berretsi zutelarik eta BOEn uztailaren 18an argitaratu zelarik.

Bertan ezartzen da akordio honek irauten duen urteetarako (2018, 2019 eta 2020) %2 inguruko soldata igoera finkoa urte bakoitzerako eta %1eko zati aldakor bat hitzarmen bakoitzean zehazten diren kontzeptuei lotutakoa (produktibitatearen bilakaera, emaitza, justifikatu gabeko

absentismoa eta beste batzuk), kuantifikatutako adierazleei jarraikiz, neurgarriak eta bi alderdiek ezagututakoak betiere.

Era berean, progresiboki, urtean 14.000 euroko hitzarmeneko gutxienerako soldata ezartzea eskatzen da, egungo hitzarmen kolektibo beretan sartu beharrekoa, hitzarmen horien berritzearekin lotuta betiere.

2.2- EAEⁿ HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEA²

Hitzarmen Kolektiboen Erregistroan ³, eskuragarri dagoen informazioaren arabera, 2018ko lehenengo seihilekoan hitzarmen kolektiboen 12 ez-aplikatze jaso ziren, 331 langile eraginpean hartuta guztira.

Iazkoarekin alderatuta, aurkeztutako ez-aplikatzeen kopuruak ez du aldaketarik, eta %123,6 hazi dira, aldiz, gehitutako pertsonak. Dena den, adieraztekoa da hazkunde garrantzitsu hori Vidriera y Cristalería de Lamiaco SA enpresak aurkeztutako ez-aplikatzeari dagokiola, enpresak duen 238 laguneko plantilla erabakigarria baita eraginpekoen kopurua igotzeko.

Estatu osoa hartuta, murriztu egin zen ez-aplikatzeen kopurua zein eraginpeko langileen kopurua, 2017ko lehenengo seihilekoan izandako 631 ez-aplikatzeetatik 2018ko aldi berean izandako 583 ez-aplikatzeetara igarota, eta murriztu egin zen, halaber, eraginpeko langileen kopurua 12.738tik 10.631ra igarota (-%16,5).

Sei hilabete hauetan EAEko Lan Agintaritzan sartutako ez-aplikatze guztiak alderdien arteko akordioarekin sartu ziren. Ez-aplikatze horien arteko 11tan kontsultaldian lortu zen akordio hori, eta haien arteko batean, aldiz, hitzarmenaren batzorde paritarioan lortu zen akordio hori.

Aplikatu gabe geratzen den gaiari dagokionez, soldata zenbatekoa ez-aplikatzeen arteko 9tan ageri zen, guztira 301 langile eraginpean hartuta. Soldata zenbatekoa beste zenbait gairekin batera (ordainsari sistema, borondatezko hobekuntzak edo lanaldiarekin lotutako puntuak) gainerako

² 2012an ezarritako lan erreformak aukera ematen die EAEko enpresei, kausa ekonomiko, tekniko, antolakuntzako edo produktiboak gertatzen direnean, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan aurreikusitako lan baldintza jakinak ez aplikatzeko, enpresa eta langileen ordezkariak ados jarriz gero. Desadostasunik badago, desadostasuna hitzarmenaren batzordearen iritzipean jar liteke. Batzorde honek esku hartu ezean edo akordiorik lortu ez badu, alderdiek Precora jo beharko dute. Precon ere desadostasuna ebatzi ez badute, alderdietako edozeinek ORPRICCEren iritzipean jarri ahal izango du; horren egoitza LHKn dago.

³ <http://explotacion.mtin.gob.es/reqcon/pv/index.htm>

lau ez-aplikatzeetan ageri ziren, 30 langile eraginpean hartuta.


Adierazi behar da lehenengo sei hilabete hauetan ez-aplikatze eskaera bakar bat ere ez zela iritsi ORPRICCE Estatutuaren araberrako Hitzarmen Kolektiboak ez aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organora.

Estatu osoa hartuta, ez-aplikatzeen %90,7an alderdien arteko akordio batera iritsi zen kontsultaldian, ez-aplikatzeen %6an akordio batera iritsi zen hitzarmenaren batzorde paritarioan, eta ez-aplikatzeen %2,1ean, aldiz, bitariko organo baten bitartekotzaren edo laudoaren bidez lortu zen akordio hori, eta 6 ez-aplikatze soilik (guztizkoaren %1) izan ziren hirualdeko organo baten barruan hartutako erabakiaren ondorio.

7. GRAFIKOA

EZ-APLIKATZEEN ERAGINPEAN HARTUTAKO PERTSONAK

Euskal Autonomia Erkidegoa. Lehen sei hilekoa



Soldata zenbatekoa soil-soilik edo beste kontzeptu batzuekin batera ez aplikatzearen eragile izan zen Estatuan sartutako ez-aplikatzeen %84,3an, eta langileen %72,9 izan ziren horren eraginpean.

Zerbitzuen sektoreak, 9 ez-aplikatzeekin, jarraitzen du izaten ez-aplikatze gehien dituen EAEko sektorea, atzetik industria eta eraikuntza dituelarik, bi kasuetan ere 2 ez-aplikatzerekin. Haatik, eraginpean hartutako langileei dagokienez, sektore industrialak da, 240 pertsonarekin (guztizkoaren %72,5), ez-aplikatzeek eraginpean hartutako langile gehienak biltzen dituen, atzetik zerbitzuak dituelarik 75 langilerekin, guztizkoaren %22,7. Azken tokian eraikuntzaren sektorea

dago, ez-aplikatzeek eraginpean hartutako 16 pertsonarekin soilik, hau da, eraginpekoen guztizkoaren %4,8.

Adierazi behar da azken urteotan ez-aplikatzeek eraginpean hartutako langileen kopuruan pixkanakako gutxitze bat ikusi bada ere, azken sei hilabeteetako datuek joera hori eten egin dela erakusten dutela.

Estatu osoari dagokionez, azken urteotan ere ikus daiteke ez-aplikatzeen kopuruaren jaitsiera bat izan dela, eta jaitsi egin dira aurrekoarekin alderatuta ez-aplikatzeak zein ez-aplikatze horiek eraginpean hartutako langileak.

GATAZKAKORTASUNA ETA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK


2.3- GREBAK

2018ko lehenengo seihilekoan grebek eragindako lan gatazken hazkunde bat izan zen, eta gehitu egin da greben kopurua, eraginpeko langileena eta lan egin gabeko lanaldiena.

Horrela, 2018ko urtarrila-ekaina aldiko datuak 2017ko lehenengo seihilekoekin alderatzean, greben kopurua %13 igo zela egiaztatzen dugu, eta eraginpeko langileena eta lan egin gabeko lanaldiena %39,1 eta %33,7 hazi ziren, hurrenez hurren. Era berean, greben ondoriozko gatazka maila azken hiru urteetako handiena izan da azken seihileko honetan.

8. GRAFIKOA
GREBA, ERAGINPEKO LANGILE ETA LAN EGIN GABEKO LANALDI KOPURUA

Euskal Autonomia Erkidegoa. Lehen seihilekoa



Iturria: Lan eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritza.

Jarduera sektoreen arabera, zerbitzuen sektorea izan zen nabarmentzekoena, greben %59,2, parte-hartzaileen %89,9 eta lan egin gabeko lanaldien %64,3 bildu baitzuen, eta hezkuntza sektorean izandako zenbait gatazka dira aipatzekoak, batera hartuta sektore tertziarioan galdutako lanaldien guttizkoaren %62,5 izan baitziren.

Bigarren lekua industriarena izan zen, greben %40arekin, eraginpeko langileen %10arekin eta galdutako lanaldien %35,6arekin, eta grebak eraikuntzaren sektorean, aldiz, guttizkoaren %0,77 besterik ez ziren izan, eta lan egin gabeko lanaldien guttizkoaren %0,05. Sei hilabete hauetan ez da


gatazkarik izan nekazaritza sektorean.

Adierazi denez, 2015az geroztik, greben ondoriozko gatazkakortasunaren pixkanakako igoera ikusten da, nahiz eta adierazi behar den negoziazio kolektiboa ez dela beti gatazka horien arrazoia.

Izan ere, 2018ko lehenengo seihilekoko lan egin gabeko lanaldien %43,4 negoziazio kolektiboko prozesutik eratorriak ez ziren gatazkek eragin zituzten, %22,5 enpresen antolamenduak, lan sistemek edo berregituratzeak eragindako gatazken ondorioz izan ziren, eta lan egin gabeko lanaldien %22,8 negoziazio kolektiboko prozesuarekin zuzenean lotuta egon ziren. 2017an, aldiz, %60,7, %0,2 eta %31,3 ziren ehuneko horiek, hurrenez hurren.

2.4- PRECON AURKEZTUTAKO GATAZKAK

Bere hiru lurralde zerbitzuen bitartez kudeatzen du Lan Harremanen Kontseiluak Preco deitutakoa, hau da, Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioa. 2000ko otsailaren 16an (66. zenbakiko EHAA, 2000ko apirilaren 4koa), Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariarik handieneko sindikatu eta enpresa konfederazio guztiek sinatu zuten akordio hori.




2018ko lehen seihilekoan 267 eskaera aurkeztu ziren Precon, eta 78.805 langile izan ziren guztira haien eraginpean. Hau da, aurreko urtean baino %12,2 eskaera gutxiago aurkeztu

ziren eta %14,4 langile gutxiago izan ziren haien eraginpean.

2018ko urtarrila-ekaina aldiaren amaitutako gatazkei dagokienez, abenikoen ehunekoa gatazken %23,9ra iritsi da, langileen %19,6 eraginpean hartuta, eta iazko aldi berean, berriz, ehuneko hori gatazken %24 eta langileen %8,5 izan zen hurrenez hurren.

2.5- ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

Lehen sei hilekoan, euskal administrazioari jakinarazita enplegu erregulazioko espedienteek murrizketa handi bat izan zuten, espediente kopuruan zein eraginpean hartutako pertsonen kopuruan (-%22,7 eta -%40,8, hurrenez hurren).




Murrizketa hori bereziki esanguratsua da beren lan harremanaren etete espedienteek eraginpean hartutako langileen kopuruan, -%51,7 jaitsi baitziren iazko aldi berarekin alderatuta.

Oro har azken urteetan eta egoera ekonomikoaren hobekuntzarekin batera, jaitsiera handia ikusten da enplegu erregulazioko espedienteetan zein eraginpeko langileetan, eta bereziki esanguratsua da murrizketa hori lan harremanaren etete espedienteetan, non eraginpeko langileen kopurua duela hiru urte erregistratutakoa baino sei bider txikiagoa den. Bestalde, 2018an hutsaltze espedienteek eraginpean hartuko

pertsonen kopurua %4 jaitsi da 2015. urtearekin alderatuta.

11. GRAFIKOA

**ENPLEGU ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N
ETA ERAGINPEKO PERTSONAK**



Iturria: Lan eta Justizia Saila. Eusko Jaurlaritzza

Langileak sektoreen arabera aztertzen baditugu, industrian biltzen dira gehienak 2018ko lehenengo seihilekoan 720 pertsonarekin (guztizkoaren %58,5), atzetik zerbitzuak 386 pertsonarekin (%31,4), eraikuntza 84 pertsonarekin (%6,8) eta nekazaritza sektorea 41 pertsonarekin (%3,3) daudelarik.

Espedientea aurkezteko arrazoiari dagokionez, lehenengo seihilekoan eraginpean hartutako 10 langiletatik 9 arrazoi ekonomikoengatik izan ziren, eta horixe izan zen Enplegu Erregulazioko Espediente bat aurkezteko arrazoi nagusia.

3. ENPLEGUA ETA KONTRATAZIOA

Atal honetan enpleguaren bilakaera aztertzen da, batez ere jakinarazitako kontratazioaren eta Gizarte Segurantzarako afiliazioaren bidez.

Era berean, erregistratutako langabeziaren bilakaera eta Jarduerarekiko Biztanleriaren Inkestaren emaitza nagusiak aztertzen dira.

3.1- JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA

2018ko lehenengo seihilekoan, EAEn enplegu zerbitzuei jakinarazitako kontratuen kopurua %4,9 hazi zen iazko aldi berarekin alderatuta, eta kontratazio mugagabea erritmo askoz ere handiagoan hazi da (%21,8) aldi baterako kontratuek erregistratutako hazkundera baino (%3,4).


Jakinarazitako kontratazioaren leundutako urte arteko hazkunde tasen analisiak (ikus grafikoa) erakusten duenez, 2013tik aurrera eta 2015. urtearen hasierara arte igoera handia gertatu zen izenpetutako kontratuen kopuruan, eta apaldu egin zen orduz geroztik haien hazkunde erritmoa, batez ere 2017an, ekitaldi horretan formalizatutako kontratuen kopurua urte arteko tasa nabarmen txikiagoekin hazi baitzen aurreko urteetan erregistratuekin alderatuta.

Dena den, 2018tik aurrera joera aldaketa bat markatzen dute datuek, indarrez hazi baita jakinarazitako kontratazioa, batez ere 2018ko bigarren hiruhilekoan, sinatutako kontratuen kopurua %6,6 hazi baitzen iazko aldi berarekin alderatuta.

Lanaldi motaren arabera, 2018ko lehenengo seihilekoan intentsitate handiagoarekin hazi ziren lanaldi osoko kontratuak lanaldi partzialekoak baino (%6,1 eta %2,9, hurrenez hurren). Dinamismo handia kontratu finko etenei egokitu zitzairen (%16,8), nahiz eta komeni den kontuan hartzea jakinarazitako guztizkoaren gain duten pisua oso murrizta dela (guztizkoaren %0,2).

Hobekuntza hori gorabehera, adierazi behar da 2018ko lehen seihilekoan sinatutako hamar kontratutatik lau lanaldi partzialekoak direla eta sinatutako kontratu gehienak aldi baterakoak direla (%90,7), jakinarazitako kontratazio osoan duten pisua portzentajezko 1,3 puntu gutxitu bada ere iazkoarekin alderatuta.

12. GRAFIKOA
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUEN BILAKAERA.
URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA LEUNDUAK ⁴



ITURRIA: SEPE.

Sexuen arabera, lehenengo seihiilekoan, kontratazioaren hazkundera zertxobait dinamikoagoa izan zen gizonen kasuan emakumeenean baino (%5 batetik eta %4,8 bestetik); jada ohikoa denez, emakumeak izan ziren lanaldi partzialeko kontratu gehienen hartzaile (lanaldi mota horiek guztizkoaren %66,8), eta gizonek dauzkate oraindik ere lanaldi osoko kontratu gehienak (guztizkoaren %61,4).

1. KOADROA
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUEN KOPURUA,
KONTRATU MOTAREN ARABERA

	I. SEHILEKOA 2017	BANAKETA I SEI. 2017	I. SEHILEKOA 2018	BANAKETA I SEI. 2018	URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA
Jakinarazitako kontratuak	465.904	%100	488.716	%100	%4,9
Mugagabeak	37.220	%8,0	45.335	%9,3	%21,8
Aldi baterakoak	428.684	%92,0	443.381	%90,7	%3,4

Iturria: SEPE.

⁴ Tasa leunduak erabiltzen direnez, ausazko gorabeherak partzialki ezabatzen dira eta joeratik kanpoko datuak baztertu egiten dira; hartara, joeraren noranzkoa hobeto zehatz daiteke.

Jarduera sektoreak kontuan hartuta, guztiek ere gehitu egin zuten oro har beren kontratazio bolumena ekitaldiko lehenengo sei hilabeteak osorik hartuta, sektore industrialari dagokiolarik aurrerapen handiena termino erlatibotan (%6,7), atzetik lehen sektorea (%5,9), zerbitzuak (%4,6) eta eraikuntza (%3,1) dituelarik.

Edozein kasutan ere, zerbitzuek 2018ko lehen seihilekoan jakinarazitako kontratazio totalaren %78,3 hartu zuten.

**2. KOADROA
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUEN KOPURUA,
LANALDI MOTAREN ARABERA**

	I SEIHILEKOA 2017	I SEIHILEKOA 2018	URTE ARTEKO ALDAKUNTZA
JAKINARAZITAKO KONTRATUAK	465.904	488.716	%4,9
Lanaldi osokoak guztira	272.846	289.599	%6,1
Lanaldi partzialekoak guztira	187.368	192.795	%2,9
Aldizkako finkoak guztira	895	1.045	%16,8
Praktiketakoak eta Prestakuntzakoak	4.795	5.277	%10,1

ITURRIA: SEPE.

Jakinarazitako aldi baterako kontratuen iraupenari dagokionez, adierazi behar da zehaztu gabeko iraupena eta zazpi egun baino gutxiagoko edo zazpi eguneko iraupena duten kontratuak guztizkoaren %70,4 direla, oso gutxi jaitsi delarik zehaztu gabeko iraupeneko pisua iazkoarekin alderatuta, eta oso gutxi igo delarik halaber astebeteko edo astebetetik beherako iraupena dutenen parte-hartzea, baina bi kontratu motek duten pisuak, aldiz, ia ez du aldaketarik izan guztizkoarekin alderatuta (%70,3 2017an).

**3. KOADROA
EAE. ALDI BATERAKO KONTRATUEN PORTZENTAJEKO BANAKETA
IRAUPENAREN ARABERA**

	7 EGUN BAINO GUTXIAGO EDO BERDINA	8 EGUNETIK HILABETE tera	HILABETE 1etik 3 HILABETE- RA	MÁS DE 3 MESES, HASTA 6 MESES	6 HILABETE BAINO GEHIAGO, URTE 1era	URTE 1 BAINO GEHIA- GO	ZEHAZTUGABEA O
2017ko I. Seihilekoa	37,1	11,6	8,0	7,0	2,4	0,7	33,2
2018ko I. Seihilekoa	37,7	11,2	8,0	7,1	2,6	0,7	32,7


Iturria: SEPE.

3.2- GIZARTE SEGURANTZARAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA

2018ko lehen sei hilekoan %2,2 hazi zen Gizarte Segurantzarako afiliazio totala urte arteko terminotan 2018ko ekainean afiliatutako 953.783 pertsonen kopurura (hilabeteko batezbestekoa) iritsi arte. Erregimenen arabera, urte arteko %2,8 gehitu ziren Erregimen Orokorrerako afiliazioak lehenengo sei hilekoan, eta Langile Autonomoen Erregimen Bereziari lotutakoak urte arteko %0,3 jaitsi ziren.

Gizarte Segurantzarako afiliazio totala urte arteko terminotan etengabe hazten ari da lau urte pasatxoan, zehazki 2014ko maiatzetik aurrera.

13. GRAFIKOA
GIZARTE SEGURANTZARAKO AFILIAZIOEN BILAKAERA EAE-N
(HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOA)



Iturria: Gizarte Segurantza.


Hilabete itxierako datuak kontuan hartzen baditugu, aldi baterako kontratuekin Erregimen Orokorrera afiliatutakoak urte arteko %5,1 gehitu ziren, eta kontratu mugagabeak dituzten afiliatuak, aldiz, %3,8 gehitu dira.

2018ko ekainean Erregimen Orokorrera afiliatutakoen banaketa urtebeteko lehenago 2017ko ekainean zegoenarekin alderatzen badugu, egiaztatuko dugu kontratu mugagabea duten afiliatuak 0,4 puntu jaisten direla, afiliazioaren %66tik %65,6 izatera igarota, eta aldi baterako kontratuak dituztenak, aldiz, 0,2 puntu gehitu dira, 2017ko ekaineko

%32tik 2018ko ekainean afiliazioaren guztizkoaren %32,2 izateraino.

Horrenbestez, azken hilabeteotan ikusitako kontratu mugagabeen kopuruaren hazkundera gorabehera, kontratu mota horrekin Gizarte Segurantzara afiliatuta daudenen kopuruaren jaitsierak jarraitzen du, haien pisua zertxobait jaisten delarik afiliazioaren osotasunean, eta aldi bateko kontratuekin afiliatutakoen pisua, aldiz, gehitu egin da.

14. GRAFIKOA
EAE. ERREGIMEN OROKORRERAKO AFILIAZIOAREN BANAKETA
KONTRATU MOTAREN ARABERA (DATUAK HIRUHILEKOA IXTEAN)*




(*) Nekazaritzako Sistema Berezian, Etxeko Langileen Sistema Berezian eta bestelakoetan (funtzionarioak, zainzaile ez profesionalak eta akatsak edo hutsegiteak) afiliatutakoak kanpo.

Analisiaren ardatz gisa lanaldi mota hartuta, lanaldi partzialeko kontratua duten afiliatuak urte arteko %5 hazi ziren 2018ko ekainean, eta lanaldi osoko kontratua zutenak, aldiz, %4.

Gauzak horrela, lanaldi partzialeko kontratuarekin afiliatutako pertsonen parte-hartzea Erregimen Orokorrera afiliatutako pertsonen guztizkoaren gain puntu erdi bat 2014ko ekainaren eta 2018ko ekainaren artean (%21,8 eta %22,3), eta, aitzitik, portzentajezko puntu bat jaitsi da lanaldi osoko kontratuarekin afiliatutako pertsonen kuota (guztizkoaren %75,5 2018ko ekainean eta %76,5, aldiz, lau urte atzerago).

15. GRAFIKOA
EAE. ERREGIMEN OROKORRERAKO AFILIAZIOAREN BANAKETA
LANALDI MOTAREN ARABERA*



(*): Nekazaritzako Sistema Berezian, Etxeko Langileen Sistema Berezian eta bestelakoetan (funtzionarioak, zaintzaile ez profesionalak eta akatsak edo hutsegiteak) afiliatutakoak kanpo.

3.3- ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA

16. GRAFIKOA
EAE. ENPLEGU BULEGOETAN ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA
(HILEKO AZKEN EGUNA)



Iturria: SEPE.

2018ko lehen sei hilekoan urte arteko $-8,3$ jaitsi zen EAEn erregistratutako langabezia (sei hilabeteetako batez bestekoa). Sexuen arabera, gizonen artean erregistratutako langabezia urte arteko $-11,2$ jaitsi zen, eta emakumeen kasuan, aldiz, -6 egin zuen atzera.


Ekaina amaitzean, enplegu bulegoetan izena emandako pertsonen kopurua 120.485 zen (51.136 gizon eta 69.349 emakume), eta 2009ko ekainera arte jo behar dugu atzera (116.098 pertsona langabezian) 2018ko ekainak baino langabeziako erregistro txikiagoak dituen beste ekain bat aurkitzeko.

Sektoreen arabera, eraikuntzak izan zuen sei hilekoan jaitsierarik handiena termino erlatibotan ($-17,6$), atzetik industria delarik ($-10,6$), eta tarte handiagora lehen sektorea ($-8,1$), zerbitzuak ($-7,4$), aurretik enplegurik gabe zegoen kolektiboa kokatzen delarik azken lekuan ($-3,8$).

3.4- BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA (BJA)


Eustat-en Biztanleria Jardueraren Arabera Inkestak $10,1$ ean ipintzen du EAEko langabezia tasa 2018ko II. hiruhilekoan, duela urtebete erregistratutakoa baino puntu bat beherago. Sexuen arabera, gizonezkoen langabezia tasa zein emakumezkoena jaitsi egin ziren gizonen kasuan $9,5$ era eta emakumeen kasuan $10,9$ ra iritsi arte.

17. GRAFIKOA
EAE. LANGABEZIA TASA (BJA)




Iturria: Eustat

18. GRAFIKOA
EAE. BIZTANLERIA AKTIBOAREN ETA BIZTANLERIA LANDUNAREN BILAKAERA



19. GRAFIKOA
EAE. BIZTANLERIA AKTIBOAREN ETA EZ-AKTIBOAREN BILAKAERA



Iturria: Eustat

Biztanleria landunaren igoerak (+14.700 langile) langabezian 9.500 pertsona gutxiago egotea eragin du, eta langabezian izandako hobekuntza horrek ez du lagundu, aurreko hiruhilekoetan bezala, biztanleria aktiboaren jaitsieran.

Izan ere, 2018ko II. hiruhilekoko zifrak duela urtebetekoekin alderatzen baditugu, egiaztatuko dugu biztanleria aktiboa (landunak diren pertsonak edo enplegua modu aktiboan bilatzen dutenak) 5.300 pertsonatan igo dela, eta biztanleria ez-aktiboa, aldiz, 6.000 pertsonatan jaitsi da.

Biztanleria aktiboaren igoera horretarako gehien lagundu duen kolektiboa emakumeak izan dira, 4.700 pertsonarekin, eta gizonen kasuan, aldiz, biztanleria aktiboaren igoerarako egindako ekarpena 600 pertsona eskasekoa da.

4. KOADROA
BIZTANLERIA AKTIBOA, LANDUNA, LANGABEA ETA EZ AKTIBOA

	Biztanleria aktiboa	Biztanleria landuna	Biztanleria langabea	Biztanleria ez-aktiboa
II. hiruhilekoa 2018	1.046.500	940.300	106.200	791.000
II. hiruhilekoa 2017	1.041.200	925.600	115.700	797.000
Aldakuntza	+5.300	+14.700	-9.500	-6.000